Toma la palabra el concejal Sr. Otegui que muestra su malestar por la reincidencia y la afirmación que el Sr. Martínez, al contestar a las alegaciones, ha hecho sobre el grupo Aranandi y su posicionamiento respecto a este asunto diciendo que está en contra del proyecto y poniendo en nuestra boca algo que su grupo no ha manifestado.

Debatido el asunto, se acuerda con cinco votos a favor (Srs./as Oyarbide, Azanza, Otegui, Azanza e Irigaray) y dos en contra (Srs. Martínez que considera que con la primera alegación era suficiente y De Potestad) aprobar la totalidad de las alegaciones propuestas por el Sr. Alcalde procediendo a su remisión a la Dirección General de Industrial, Energía e Innovación.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18,00 h. del mismo día se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2013ko otsailaren 26an, 17:00etan, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: María Roncesvalles Azanza Burusco, M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegui Echeverría, Luis De Potestad Tellechea eta Jesús Martínez Rico, alkatea, José Irigaray Gil, bilkuraburu izan zen eta idazkaria Marisol Ezcurra Irure.

1º.- 2012-2013 BASO LANETARAKO PROPOSAMEN BERRIA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Biodibertsitatea Kontserbatzeko Zerbiztuzak jakinarazi duela 2012-2013 epealdiko baso lanetarako laguntzen deialdian aurreikusitakoa bertan behera gelditu dela, 2013 eta 2014 urteetako aurrekontuen dirua gainditu baita. Aurizko txostenari dagokionez, eskatutako 37.131 eurotik hasiera batean 21.797 € jasotzea aurreikusita zegoen eta Udalak gainontzekoa jartzea.

Ikusirik dirulaguntzari ez dela jasoko, alkateak, Irigaray jk., proposatu du Udalak aurreikusita zeukan diruarekin premia gehien dituzten lanak egitea, hots, Berroaundiako sasi-garbiketak, bideetako zolaketa eta areken garbiketa.

Bilkuran dauden kideek, Oyarbide, Azanza eta Otegui, erabaki dute aho batez alkateak, Irigaray jk., egin duen proposamena onartzea eta 2013. urterako aurreikusita zeuden 15.334 € aiptutako baso lanak egiteko erabiltzea.

Azanza, Burusco, Martínez Rico eta De Potestad Tellechea zinegotziak bileran sartu dira.

2º.- LUIS DE POTESTAD JK. PEDRO M^a TELLECHEAREN IZENEAN NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIAN JARRITAKO

12/05404 ERREKURTSOA. TXOSTENAREN ONESPENA ETA ESPEDIENTEA IGORTZEA.

De Potestad j. bileratik atera da gaiak zuzenean eragiten baitio; alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Luis de Potestad Tellecheak errekurtsoa jarri duela Pedro M^a Tellechearen izenean, Aurizko udalak igorri zion 2012ko hiri kontribuzioaren likidazioaren aurka, uste baitu kontribuzio hori eragiten dien eraikinak IKO delakoaren barne daudela eta, hortaz, ez dutela hiri kontribuziorik ordaindu behar, Nafarroako Toki Ogasunen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak dioen moduan, eta proposatu du ondoren transkribatzen den txostena onartu eta Nafarroako Administrazio Auzitegira igortzea:

“ALEGAZIOAK.

LEHENA.- Errekurtsogileak Tokiko Ogasuneko, Ondare Historikoko eta Hirigintzako Estatuko zein Foru Legeak birpasatu ondoren dio Otermineko (6 poligonoko 1 lurzatia) eta Bikarionekoko (6 poligonoko 41 lurzatia) higiezinak ez dutela zertan hiri kontribuziorik ordaindu behar, Luzaideko Multzo Historikoaren Plan Bereziaren katalogoan daudelako (2011ko martxoaren 25eko 59. NAO), irailaren 15eko 99/2008 Foru Dekretuak Interes Kultureko Ondasun deklaratu baizuen.

Errekurtsogileak dio, gaizki baldin badio ere, Plan Bereziaren katalogoan espreski bilduak daudela 6 poligonoko 1 eta 41 lurzatiak eta, 50 urte baino gehiago dutenez, “ez dutela kontribuziorik ordaindu behar, Aurizko Multzo Historikoaren barneko Babeseko Plan Bereziak Interes Kultureko Ondasun deklaratuak izan baitira espreski”.

BIGARREN.-- Errekurtsogileak gora jotzeko errekurtsuan egiten duen arautegiaren interpretazioa gaizki egina dago.

Egia da Lurraren Kontribuzioa udal zerga dela, zerga zuzena, ondasun higiezinaren balioaren gainekoa, eta horren zergapeko egitatea LFHLNren 134. artikuluan ezarritako ondasun higiezinaren gaineko eskubideen titulartasunaren zerga da.

Aipatutako arautegiaren 136. artikuluan esaten da zeintzuk diren zerga hori ordaintzera behartuak ez daudenak eta beti izaten dira ondasunen titulartasunaren ingurukoak, kasu honetan 1. paragrafoak honela dio hitzez hitz:

Urriaren 3ko 217 /1986 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera interes kultureko ondasun ESPRESKI ETA INDIBIDUALKI deklaratuak izan direnak, edo Errege Dekretu bidez interes kultureko monumentu edo lorategi historikoak deklaratuak izan direnak ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera eta haren 12. artikulua dioenari jarraiki

Erregistro Orokorrean Espainiako Ondare Historikoaren barne inskribatuak izan direnak...”.

Aipatutako aginduak gaineratzen du salbuespenak ez duela eraginik edozein hiri-ondasunengan... baizik eta, Murtzo Historikoen kasuan, 50 urte edo gehiago dutenengan eta RPUren 86. artikuluan aurreikusitako Katalogoan sartuak daudenak, beti ere 16/1985 Legearen 21. artikuluan aipatu moduan babes osoa behar badute.

HIRUGARRENA.- Gure kasuan Aurizko Murtzo Historikoa Kultur Intereseko Ondasun deklaratu zen 99/2008 Foru Dekretuaren bidez, beraz, ez errekurtsogileak dioten eraikin eta lursailak, baizik eta Murtzo Historiko osoa, hau da ez bakarrik murtzo historikoa baizik eta “harekin zerikusia duten inguruko lurak, baita herriaren gotortzearen garapena, beraz, mendebal-iparraldeko muga ibairaino eramaten da eta beste aldetik dagoen muga eraikin zaharrak eta berriak bereizten dituen karrika da.”

Ondoren, 2011ko Plan Bereziak (PEP) errekurtsogileak dioten lursailak katalogoan sartu ditu, baina ez zaie babes osoa ematen baizik eta egiten duen bakarra da sailkatu eta horiek berri, ordezkatzeko, eta abar. baldintzak ezarri.

Beraz, errekurtsogileak dioten ondasunak ez dira kultur intereseko ondasun kontsideratu, ez daude horrela inskribatuak Erregistro Orokorrean Espainiako Ondare Historikoaren barne, eta ez dute Murtzo Historikoaren Babeseko Plan Berezian sartutako katalogoan babes osoa eduki.

Errekurtsogileak dioten ondasunak, egiturazko edo ingurumeneko babespean sartuko balira Katalogoan, Tokiko Garrantzizko Ondasun bezala deklaratuko lirateke, eta horiei ez zaie zergaren salbuespenik aplikatzen.

LAUGARRENA.- Oroitarazi behar dugu zergen salbuespenak “numerus clausus” izaera dutela eta ezin da onartu horien interpretazio hedakor eta analogikorik. Salbuespena aplikatu ahal izateko, beharrezkoa da legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea.

Errekurtsu honetan aipatzen den salbuespena ezartzen duen arauaren bidez lortu nahi dena da ezaugarri kultural eta historikoengatik jabearentzako balio baino gehiago karga bat suposatzen duen ondasuna ez kargatzea, hortaz, salbuespena dauden ondasunak espreski eta indibidualki kultur intereseko ondasun deklaratzeko eskatzen da, edo 50 urte edo gehiagoko antzintasuna duten toki edo murtzo historikoen

eremuan sarturik egotea eta babes osokoak direlakoan Katalogoan sarturik egotea, ez bakarrik, kasu honetan bezala, zehaztapen batzuk betetzea zaharberritu, berreraiki edo ordezkatu eta handitzeko.

Horrenbestez:

ESKATZEN DIOT EPAIMAHAIARI idazki hau jasotzat harturik onar dezala eta 12-05404 zkia, duen Gora Jotzeko Errekurtsuari egindako alegazioak onartzea eta hari dagokion biderakuntza ematea, errekurtsioa bere osotasunean ezetsiz eta errekurrituak izan diren likidazioak berretsiz.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du martxoan bere taldeak multzo historikoa hiri kontribuzioaz salbuetsita egon zitekeela, baina ikusirik alkateak ez zuela horren gaineko txostenik eskatu errekurtsioa jarri dutela eta bere taldea txosten honen aurka dagoela.

Bozketa egin da eta erabaki da aldeko 5 botoz (Oyarbide, Azanza, Otegui, Azanza eta Irigaray) eta aurkako boto bakarraz (Martinez), alkateak, Irigaray jk. proposatu duen txostena onartzea eta bere osotasunean igortzea Nafarroako Administrazio Auzitegira, eta baita espedientearen ere, egongo balitz.

3.- NAFARROAKO ONDAREA DEFENDATZEKO PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONESPENA

Irigaray jk., alkateak, hitza hartu du eta esan du 2007an Iruña-Tuterako artzapezpikutzak hasiera eman ziola elizak, apaizen etxeak, eta abar eskrituratzeko prozesuari eta, hori dela eta, Agoizko Udalak onetsi duen mozioa irakurri du, Aurizko Udalak onetsi dezan. Hona hemen:

1º.- Nafarroako Gobernuak eman diezaiela Nafarroako herriei bere ondare publikoaren inguruko jatorriaren eta eskubideen informazio juridiko eta historikoa eta eliza katolikoak eskrituratu dituen ondasunak berreskuratzeko laguntza eman diezaiela Udalei eta Kontzejuei.

2.- Nafarroako Gobernuak informazioa eman dezala eliza katolikoak inmatrikulatutako ondarea, diru publikoa erabiliz, konpontzen, hobetzen eta mantentzen egindako inbertsioei buruz, Nafarroako Gobernuak, Estatua eta Toki Entitateek emandako laguntza publikoek kostu osoaren zein zenbatekoa egiten duten zehaztuz. Nafarrek eskubidea dute elizak pribatizatu dituen ondasunak, ia bere osotasunean, noraino finantzatu eta mantentzen dituzten jakiteko.

“Erortzeko zorian dauden eta eliza katolikoaren izenean agertzen diren eraikinen zerrenda”-ri dagokion inprimakia betetzea.

2013ko apirilaren 6an, 10:30ean, deitua dagoen Nafarroako Udal eta Kontzejuetako alkate eta zinegotzien Batzarrera joateko Udalbatzaren

ordezkariak izendatzea; Burlatako Kultur Etxeko Entzunaretoan izango da.

5. Erabaki honen berri Nafarroako ondarearen defentsarako Plataformari jakinaraztea.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du nahiz eta aurreko osoko bilkuran bere taldeak aurka bozkatu eskaera legitimoa baldin bazen ere, uste zuten politizatua zegoela eta elizaren aurkako izaera zeukala. Orain proposatu dena legitimoa dela uste dute, ez politikoa, eta, hortaz, alde egingo dute.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

Lehenengo.- Agoizko Udalak aurkeztu duen mozioa onartzea, ondoren aipatzen den moduan:

1.- Nafarroako Gobernuak eman diezaiela Nafarroako herriei bere ondare publikoaren inguruko jatorriaren eta eskubideen informazio juridiko eta historikoa eta eliza katolikoak eskrituratu dituen ondasunak berreskuratzeko laguntza eman diezaiela Udalei eta Kontzejuei

2.- Nafarroako Gobernuak informazioa eman dezala eliza katolikoak inmatrikulatutako ondarea, diru publikoa erabiliz, konpontzen, hobetzen eta mantentzen egindako inbertsioei buruz, Nafarroako Gobernuak, Estatua eta Toki Entitateek emandako laguntza publikoek kostu osoaren zein zenbatekoa egiten duten zehaztuz. Nafarrek eskubidea dute elizak pribatizatu dituen ondasunak, ia bere osotasunean, noraino finantzatu eta mantentzen dituzten jakiteko.

3.- "Erortzeko zorian dauden eta eliza katolikoaren izenean agertzen diren eraikinen zerrenda"-ri dagokion inprimakia betetzea.

4.- 2013ko apirilaren 6an, 10:30ean, deitua dagoen Nafarroako Udal eta Kontzejuetako alkate eta zinegotzien Batzarrera joateko Udalbatzaren ordezkariak izendatzea; Burlatako Kultur Etxeko Entzunaretoan izango da.

5.- Erabaki honen berri Nafarroako ondarearen defentsarako Plataformari jakinaraztea.

Bigarren.- Hartutako erabakiaren berri Agoizko Udalari eta Nafarroako ondarearen defentsarako Plataformari ematea.

4.- MENDIAUNDIKO HARROBIAREN IKERKUNTZA PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ONESPENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Blanca ustiaketa proiektuari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Industria Departamentuko Meategien Sailatik proiektua igorri dutela eta hura NAOean argitaratzen denetik hamabost eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal direla.

Proiektua aztertu eta berrikusi ondoren honako alegazioak onartu eta igortzea proposatu du:

AZALPENA

Ingurumen eta Ura Zuzendaritza Orokorrak CD bat igorri zion Udalari, Erroibar eta Auritzen Silice Navarra S.L. enpresak sustatu nahi duen "Blanca 35870" ustiaketaren proiektua biltzen du eta udalei eskatu zitzaien horren inguruan informazioa ematea (1-A Eranskina). Dokumentuak 2012 azaroaren 27ko data du eta Aurizko Udalaren Sarrera-Erregistroan 372 zkia.

Energia eta Meategien zerbitzuak dokumentua igorri zion Udalari BLANCA Ikerketa Proiektua jendaurrean zegoela jakinaraziz; dokumentuak 2013ko otsailaren 14ko data du eta Udalaren Sarrera Erregistroan 34. zkia. (1-B Eranskina).

Bi dokumentuak erkatu ondoren ikus daiteke diferentziak daudela, beraz Ingurumen eta Ura Zuzendaritzak igorri duen dokumentuari men egiten zaionean "BLANCA 2012" deituko diogu eta gainontzekoak, ezer aipatuko ez direnetan, Energia eta Meategien Zerbitzuko dokumentuari buruzkoak izango dira.

LEHENENGO ALEGAZIOA

"Ikerkuntza Proiektua (BLANCA 2012)" izeneko dokumentuaren 6. orrialdeko 1.4.2. puntuan honakoa dio:

"Egindako ikerkuntza kontuan hartuz, ikerketak egingo direneko mineral masaren morfologia zehaztu ahal izan da.

Orain arte ebaluatu den mineral masaren ustiaketak sortutako 3D ereduak erantsi da, sustatzaileak uste du egokia dela industria erabilerarako eta horren gainean egingo da ikerketa proiektua".

"Ikerkuntza Proiektua" izeneko dokumentuaren 22. orrialdean honakoa dio:

"Zundaketak sareta bakarrean egingo dira, hala ere, eskatutako lau saretetan antzeko areazko ezaugarriak antzeman direnez (plano geologikoan ikus daitekeen moduan), zundaketen emaitzak estrapolatu ahal dira eremu zehatz batera, kasu honetan sareta batetik gainontzekoetara".

"Leheneratze Proiektuaren Eranskina" izeneko dokumentuaren 51. orrialdean argazki muntaia agertzen da eta horretan planteatzen dute ustiaketa Mendiaundiko gainetik behera, 32 hektareako lurra hartuz, horietatik 9 Aurizko dermioan.

"Flora eta Landarediaren txostena" izeneko dokumentuaren 1. orrialdean esaten da ustiaketak 32 hektarea hartuko dituela, 3. orrialdean lau puntu kardinaletara bideratua eta 27. orrialdean galtzen dena 32 hektareak direla.

Flora eta landarediaren leheneratze proiektuaren 2. eranskinean honakoa dio:

“Hurrengo mapan meategi proiektuaren mugen berrantolaketa aipatzen da”. Eta argi gelditzen da ustiaketa Mendiaundiko gainetik behera egingo dela.

Aurizko Udalak, bere eskumenekoa denez, ez du inolako baimenik eman behar planteatu den ikerketa proiektuarentzako, are gutxiago meategiaren ustiaketarako, herritarrak eta, ondorioz, Udalak, haien ordezkari den heinean, gaiaren inguruko erabakirik hartu arte. Erabakia modu lasaian hartuko da eta proiektuak izan ditzaken ondorio guztiak baloratzeko informazio guztia jakin ondoren, 2012an izandako kontsultapean azaldu zen bezala. Horregatik sustatzaileak, Aurizko erabakiaren jakitun, ez du gure dermioan zundaketarik proposatzen.

Hortaz, eskatu da:

A) Meategien Zerbitzuak esan dezala Aurizberriko kontzejuko zundaketen emaitzak Aurizko Udalarena den zatiari, gutxi gora behera 90.000 metro koadro, estrapolatu ahal diren proiektatutako ustiaketa egingo balitz..

B) Kontuan hartuz ez dela ustiatzeko baimena ematea baina ikusirik zundaketak Mendiaundiko gainetik behiti egingo den ustiaketari begira egingo direla, zundaketak inpaktu gutxiago sortuko duen ustiaketa batera egokitzea eskatu da.

BIGARREN ALEGAZIOA

“Ikerketa Proiektua” izeneko dokumentuaren 7. orrialdean, 1.5 puntuan honakoa dio:

“Aurreikusita dauden erabilera nagusiak dira beiraren industria, burdinurtuzko moldeentzako area eta lurren medeaketak”. Hortaz, C saileko baliabide gisa sailkatu da.

Eskatu da argi gera dadila dokumentuan Meategien Legearen C Sailan sarturik ez dauden beste erabilera emango balitzaio produktuari ustiaketa baimena bertan behera geldituko litzatekeen.

HIRUGARREN ALEGAZIOA

“Ikerketa Proiektua”ren dokumentuaren 14. orrialdeko 3.1 puntuan eta “Leheneratze Proiektuaren Eranskina” izeneko dokumentuaren 7. orrialdean honakoa dio: “Modu berean aipatu da dokumentu hau aurkeztu denerako Silice Navarrak eta Aurizberriko Kontzejuak hitzarmena sinatu dutela meategia egiteko lurak uzteko baldintzak ezarriz, lur horietan ere ikerketa egingo da. Dokumentuaren azala eta kontra azala erantsi dira”.

Gaiari buruz informazio gutxi dagoela kontuan hartuz, Udalak eta herritarrek ez dute iritzi faboragarrikerik edo kontrakorik eta Udala informazioa biltzen ari da ongi oinarritutako erabakia hartu ahal izateko. Ustiatuko diren 32 hektareetatik ia laurdena, gutxi gora behera 9, Aurizko dermioan daudela. Aurizberriko Kontzejua, erabakia hartzeko zertan oinarritu den baloratu gabe, baliabidea ustiatzearen alde dago.

Beraz, eskatu da ikerketa egiteko baimena emanaz gero, zundaketak beste era batera egitea, ez goitik behera, kontuan hartuz Aurizberrik aldeko jarrera duela, ustiaketa aurrealdetik egitea, Aurizberriko are-harrobetik begiratuta.

LAUGARREN ALEGAZIOA

Ikerketa Proiektuaren bigarren planoan badago sestra-kurba bat eta Aurizko dermioari dagokion zatia lodiagoa da bestea baino, baina planoan ez da horren azalpenik ematen. Kontuan hartuz ez dela Aurizko dermioan ezer egiteko baimenik eman, aipatutako plano eta daraman informazioa deuseztatzea eskatu da, hori horrela zergatik den argitu arte.

BOSGARREN ALEGAZIOA

“Leheneratze Proiektuaren Eranskina” izeneko dokumentuaren 6. orrialdeko 2. puntuan eta 82. orrialdean, jarduera justifikatzeko ematen diren interes publikoko arrazoiaren artean, honakoa aipatzen da:

- *“Minerala bakarra da Nafarroan. Ez dago beste inon.*
- *Dituen ezaugarriengatik bakarra da Industria erabilerarako.*
- *Meatoki garrantzizkoa da ez baita inguruko beste komunitateetatik inportatuko.*
- *Lanpostu zuzen eta zeharkako asko sortuko dira.”*

Hala ere, baieztapen horiek ez daude ikerketetaz bermatuak.

Eskatzen da proiektuaren sustatzaileari honakoak aurkez dezala esatea: bestelako meatokirik ez dagoela ziurta dezala, materiala C saileko erabilerarako izango dela frogatzea eta sortuko diren lanpostu zuzen eta zeharkakoen balorazioa.

SEIGARREN ALEGAZIOA

“Leheneratze Proiektua” dokumentuaren barnean badago “Blanca” ustiaketaren proiektua hartzen duen eremuko flora, landaredia eta habitaten inguruko txostena, lau atal ditu baina horretan ez da ikerketa proiektuaz ari baizik eta ustiaketaz, eta hori ez luke zertan hor egon behar.

Beraz, eskatu da zati hori eta eranskinak kentzea edo hori egin ezean sustatzaileari eskatzea proposatu duen ustiaketa baino inpaktu gutxiago sortuko duen beste bat aurkez dezala.

ZAZPIGARREN ALEGAZIOA

Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak 2012ko ekainean eta uztailean “Blanca” proiektua jendaurrean egon zen bitartean Udalak bi iradokizun aurkeztu zuen, honakoari 2. eta 3. Eranskin gisa erantsiak, bat giza mailakoa eta bestea ingurumenari dagokiona, azkeneko hau Camino Jaso Leon biologoak egina.

Bi iradokizun horiek kontuan hartzea eskatu da ikerketa baimena emateko erabakia hartu aurretik”.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du alegazio horiei buruzko honako gogoeta egin nahi duela:

Alde batetik alkatearen taldeak zalantzak ditu proiektuari buruz, horrela isladatu zuten aurreko bilkuran aipatu zen idazkian, baina beste aldetik azaldu dituen aleazioek ez dute ekarpen gehiegi egiten eta proiektuaren kontra baldin badaude, uste du hoberena dela argi eta garbi esatea, ez da ezer gertatuko, baina horrela bada, esan behar da.

Lehenengo alegazioari dagokionez eta *“azaldutakoa ikusirik eskatu da”* dioen paragrafoa irakurri ondotik, Martinez zinegotziak dio gauza gaizki hasi dela, argi dago alkateak ez duela deus jakin nahi ezta ikertzeaz ere.. ezin imaginatu ustiatzeaz... udala da baimenak eman behar dituen, beraz ez dago deus esateko...

Alegazioaren irakurketarekin jarraituz, A) puntua bukatu ondoren, Martinez jk. aipatu du zundaketak estrapolatu ohi direla intereseko eremu guztira,... argi gelditzen dena da alkatea ez dela zundaketak egin dituen enpresaz fidatzen eta iritzia eskatzen dio Meategien Zerbitzuari... hori egin daiteke, baina esan ahal diote enpresak duen meategi ingeniaria erabat fidagarria dela, eta beste txosten bat nahi izanez gero bere kasa egin dezala... horrelako jarrerak ez dira ohikoak.

Azkenik B) puntua irakurri ondoren gaineratu du hori ezer ez esatea badela, zundaketak, ikertzeko edo ustiatzeko badira, inpaktua gutxitzen duen teknikari jarraituz egin behar dira, inpaktua gutxitua izan behar du, eta Leheneratze Prozesuan lekua behar bezala utziko dela aurreikusi behar da.

Ondoren bigarren alegazioa irakurrita, Martinez jk. dio kasu honetan ere ezetz izango dela, erabilera nagusietaz eta ataletaz ari da eta horiek honen arabera zehazten dira:

Mineral meatokiak eta bestelako baliabide geologikoak, Lege horren arabera, honako ataletan sailkatzen dira:

D. Atal honetan sartzen dira balio ekonomiko gutxi dutenak eta geografikoki merkaturaketa mugatua dutenak, baita azpiegitura, eraikuntza eta harroketa, hausketa eta kalibratzeko lanak baizik eskatzen ez duten bestelako lanetan erabiltzea.

E. IV Tituluaren I Kapituluak ezartzen dituenen artean ur mineralak, ur termalak, lur azpiko azpiegiturak eta Lege horrek arautzen dituen operazioen ondotik sortutako meatokiak sartzen dira.

F. Atal honetan aurrekoetan sarturik ez dauden mineral meatokiak eta baliabide geologiakoak sartzen dira, Legeak ezarritako moduan aprobeixatuak, ondoren aipatzen den atalean sartuak ez daudenak izan ezik.

Ikatzak, mineral erradioaktiboak, baliabide geotermikoak, harkaitz bituminosoak eta interes energetikoa duten edozein mineral meatoki edo baliabide geologiko.

Ez du ematen aterako diren mineralen erabilera Meatokien Legeak aurreikusten dituen horietako lau ataletako ezta batean ere sartzen denik.

Hirugarren alegazioari dagokionez, hura irakurri ondoren Martinez jk. dio ez dabiltzala oso ongi matematikaren arloan... 9 ha. 32 hektareetako $\frac{1}{4}$ baino gehiago baitira... ez ia $\frac{1}{4}$... horrekin esan nahi dutena da beraiek ez dutela horretan parte hartuko erabakia hartu arte eta ikerketa Aurizberriko dermioan bakarrik egitea..., hots, azkenean dena ongi ateratzen bada beraiek ere sartuko direla.

Laugarren alegazioari dagokionez, Martinez jk. uste du plano bat ezin dela deuseztatu, hori adarra jotzea baizik ez da, eskatu ahal da zergatik den diferentea marra hori... baina plana deuseztatzea tontakeri hutsa da. Eta bosgarren alegazioari dagokionez, luzatzea besterik ez da... ez da ikerketarik behar lehenengo 3 argudioak frogatzeko... beharbada azkena, lanpostuei buruz ari dena, edozein enpresak orri batean esan ahal baitu zenbat lanpostu beharko dituen proiektu bat aurrera eramateko. Aurka baldin badaude esatea besterik ez dute.

Seigarren alegazioa irakurri ondoren, Martinez jk. dio leheneraketa beti egin behar dela, bai ikerketa zein ustiaketa denean... ez du hori frogatzeko dokumenturik, baina kasu honetan ustiaketari men egiten bazaio, soberan dago... hala ere uste du biak antzekoak izango direla, eta zazpigarren alegazioari dagokionez, iradokizunei buruz horiek kontuan hartzea erabakitzen dutenek esango dute... agian oso onak dira edo beharbada balio gutxikoak... ez dira zertan iradokizun guztiak kontuan hartu behar.

Martinez jk. uste du alegazio horiek behartuak direla... dokumentua aztertuz... Nafarroako Unibertsitate Publikoko Informatika Zerbitzuan idatzi dira baina ez du uste Leheneratze Proiektuaren aurrean argudio sendorik isladatzen dutenik, berari proiektu hori ongi egina dagoela iruditzen zaio.

Labur esanda, izurra izurtu besterik ez dute egiten, ematen dituzten arrazoiak farregarriak dira, argi dago ez dutela proiektua egitea nahi (ezta ikerketa ere), baina ez dute atea itxi nahi, Aurizberrin gauzak ongi atera ezgero beraiek ere alde egingo bailukete..., hori bai, proba guztiak Aurizberrin hasiz gero, gure 9 ha. ez daitezela ukitu.

Asko bortxatuta egin dira, badirudi Unibertsitateko norbaitek idatzi dituela, baina horri ez zaizkio argudioak falta.

Hori guztia lehenengo alegazioaren bidez konpondu ahal da, horretan esaten baita Aurizko Udalak ez duela lizentziarik emango herritarren parte hartzearen

bidezko prozesu batek onarpena eman arte... eta lurrak publikoak direnez, horrela izan behar...

Oyarbide ak. hitza hartu du eta galdetu dio Martinez jaunari argi duen eta proiektuaren alde dagoen. Martinez jk. esan dio argi ez duela, eta Oyarbide ak. erantzun dio berak ere ez, ez dagoela ez alde ez aurka, beraz, berdin daudela.

Martinez jk. dio proposatu diren alegazioetatik lehenengoarekin aski zela eta egin behar ziren hitzaldietaz galdetu du.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Aranandi Taldeak ez duela ezetz esaten, bere ustez proiektua hobetu ahal duten alegazio batzuk aurkeztu besterik ez dira egiten ari, proiektuak aurrera egingo du ala ez, baina aurrera ateratzen bada alegazioek hobetzeko balio dute. Beste aldetik dio antolatu behar diren hitzaldietaz harremanetan jarri zela sustatzailearekin hitzaldiak egiteko, baina eguraldi oso txarra egin duenez, hilabete eta erdian ez baitu elurrik baizik egin, eta jende gutxi hurbilduko zela aurreikusita, aurrerago egitea pentsatu zuen. Dena den, bere taldeak ez du inoiz esan ez duela ikerketa proiektua egitea nahi baina bere zalantzak dituela.

Martinez jk. hitza hartu du eta hitzaldien kontua argi gelditu dela dio, baina hala ere uste du informazio gehiago jaso behar dela eta zenbat eta gehiago jakin gaiari buruz, hobe, proiektua garrantzi handikoa baita, eta berak dio bere taldea ingurumeneko legea errespetatzen duten proiektu guztien alde daudela, baldin eta gizartearentzako onurak ekartzen baditu, lanpostuak sortzen baditu eta eskualdearentzako aberatsa baldin bada.

Alkateak, Irigaray jk. hitza hartu du eta erantzun du bere taldea, baldintza horiek errespetatu eta betetzen badira, ados dagoela.

Martinez jk. uste du proiektua hainbat departamentutan aztertu eta berrikusten ari direla eta haiek badakitela ona ala txarra den, edo ez al da fidatzen Irigaray j.?

Alkateak, Irigaray j., eta Oyarbide ak. hitza hartu dute eta erantzun dute ez direla guztietaz fidatzen, zalantzak edukitzea ona dela eta badaudela Itoiz eta Esa bezalako kasu asko fidatzeko ez modukoak.

Martinez jk. dio pozten dela lehenengo aldiz entzun baitie Aranandi taldeko norbaiti horrelako zerbait esaten, eta Azanza ak. dio hori ez dela horrela, batzarrean gauza bera esan baizuten.

Otegi jk. hitza hartu du eta esan du minduta dagoela Martinez jk. Aranandi taldeaz esan duenagatik alegazioen erantzuna ematean eta esan baitu proiektuaren aurka daudela eta bere taldeak ez duela horrelakorik oraindik esan.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko bost botoz (Oyarbide, Azanza, Otegui, Azanza eta Irigaray) eta aurkako bi botoz (Martinez jaunarena, uste baitu lehenengo alegazioarekin aski dela eta De Potestad) alkateak proposatu dituen alegazio guztiak onartzea eta Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusira igortzea.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 18:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.